

# BAYONETA

Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,  
Eusco Icascuntzaren pribilegioarequin,  
Reding mercatalecheac, Artem moldizteguian.



Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,  
con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,  
por la casa de comercio de Reding, en la imprenta de Artem.

**Tolosan 1812co agorrillaren 21ean. Londresco Estafeta, Donostitic irichiya.**  
Tolosarrac, Donostico Estafetatic datozquidan Londresco berriyac ecin dira zotionchuagoac izan. Azquenean, Tiranoa, Basatia, ausartu da bere illobia Errusiaco estepa luze eta zabal izoztuetan zulacera. Buonapartec bere Equersitu Aundizat jocen duen orrec Polonia eta Errusia arteco mugac aurtengo 1812co garagarrillaren bucaeran gurucatu zituenaren zurrumurrucac enzungo eta berriyac iracurric zenituzten beste gaceta bazuetan.

Seguru asco encungo zenuten gañera Europaco Tiranoac orain bucacen den uda onetan garaipen andiac escuratu dituela Errusiaco lurraldeetan: Smolenscon, Valutinan... Dena den, ciur egon denbora guchi barru, Londrestic jaso ditudan oarren arabera, armen zortec Buonaparte Basatiaren contra eguingo duela, Alejandro Czarra, naiz eta ilustracio eta Ascatasun garai onen aldeco erregue ez oso zalea izan, Europaco Tiranoari erioceraño arteco burruca eguiteco prest agueri da, 1808az gueroztic emen eman izan dugun exenpluari jarraituz eta garagarrillaren 22 onetan Arapileseco garaipenarequin baietzatu dena.

Ala, Europaco Ipar eta Ego aldean ain echai amorratuz inguratuta, ciur emendic guchira bertan bera geratuco dela Buonaparte Basatiaren aundinaiqueria. Acaso ez da beste urtebete ere. Gogoan izan nire icac eta biciric mantendu laster eguia izan daitezqueen asque izateco ceuen icharopenac.

**Tolosaco berriac, bertan icusiyac.**

Europaco Tiranoaren acabera irichi arte, baña, eguia da aurretic denbora dexente dugula. Denbora ontan, aal becaín paciencia aundienarequin sufritu bearco ditugu beraiec enperadorezat arcen duten orren icenean gueure ondasunac irensten dituzten jaca urdiñen chaperoac.

Epaillaren 30ean berrito oico oietaco pasadizo bat guertatu cen gobernacen gaituzten chochonguillo Udalbatza orretan, frances bayonetan babesari esquer, batipat. Egun orretan Boyé baroiari, Tiranoaren icenean gueure Guipuzcoaco lurraldeco militar satrapa galantari, erregutu ciyoten egun orietan gueure erri an ceur pasacecoac ziren Basatiaren soldaduencaco milla erraciuyen ordainquetari aurre eguiten lagunceco.

Ordutic ona bitartean, estuasun oriec bein ta berriz eman izan dira. Lorailaren 13an escatu cen pagaceco emendic pasa cenean Dorsenne condearen escoltari eman cizayon erraciuyen ardo zorra. Dagonillaren 6an aneco damu berriac izan ciren Aussenaci, bere buruari Inperioco general eta mariscal titulua ematen dioten beste bidelapur buruzagui oietaco bati, escolta ematen ciyoten guizonc xautu zuten guztia pagatu bear izan cenean. Azquenic, orain dela egun guchi bazuc, il onen 20 aldera, gueure chochonguillo Udalbatzac gueure zanpazalleen erruquia escatu bear izan zuen. Zergatic ba? Ba, pagatu bear zirelaco Ragusaco duquea iceneco persona bati, Buonaparte Basatiaren beste morroi leialari, escolta eman bear zioten milla ta berreun guizonen erraciuyac.

Ez cen diruric falta, alabaña, dagonillaren 14 eta 15ean Napoleón sainduaren festa ospaceco. Morroi Udalbatza orrec ez zuen sosic, aatic, 1812co lorailaren 26 onetan Gaspar de Jaureguien agindupean gueure Ascatasun galduaren alde borrocacen duten erregimenduac ordainceco. Ancasarce galanta berau, tropa oriec baitira bidelapur orda orretatic eta beren escaerietatic defenda gaizaqueten bacarrac. Escari auec, oraingo goraberac icusita, ecin izango dituzte denbora gueiagoc ezarri.

**En Tolosa a 21 de septiembre de 1812. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.**

Tolosarras, las noticias que me llegan desde Londres por la estafeta de San Sebastián no pueden ser más dichosas. Al fin, el Tirano, el Ogro, se ha atrevido a cavar su propia tumba en las inmensas estepas heladas de la Rusia. Como ya habréis oído por algunos rumores y otras gacetas, el que Buonaparte llama su Gran Ejército cruzó las fronteras entre la Polonia y la Rusia a finales de junio de este año de 1812.

Seguramente habréis oído también de las grandes victorias en los campos de la Rusia -en Smolensco, en Valutina...- que el Tirano de la Europa ha conseguido a lo largo de este verano que ya acaba. Sin embargo, no dudéis que en poco tiempo la suerte de las armas se volverá contra el Ogro Buonaparte, pues, según dicen mis notas recibidas desde Londres, el czar Alejandro, aunque no es hombre adornado de todas las virtudes que se podrían desear en un soberano ilustrado y amante de esta

nueva Era de Libertad, se dispone a resistirle a ultranza, siguiendo el ejemplo que se ha dado en estas tierras desde el año de 1808 y al que la victoria de los Arapiles de este 22 de julio ha añadido nuevos laureles.

Así rodeado de enemigos tan determinados al Norte y al Sur de la Europa, no será mucho lo que tarde en caer por tierra la monstruosa ambición del Ogro Buonaparte. Acaso ni siquiera un año más. Guardad, pues, mis palabras en el recuerdo y junto a vuestras más queridas esperanzas de Libertad, que pronto podrán verse recompensadas.

**Noticias de Tolosa. Observadas del natural.**

Hasta que llegue esa hora fatal para el Tirano de la Europa bien cierto es que queda ante nosotros algún tiempo en el que deberemos sufrir con toda la Paciencia que nos sea posible a los esbirros de casaca azul que devoran nuestras haciendas en nombre de ese al que ellos llaman emperador.

El día 30 de marzo tuvimos ocasión de ver otro de esos torpes incidentes tan habituales ya en el Ayuntamiento de títeres que nos gobierna sostenido tan sólo por las bayonetas francesas. Ese mismo día suplicaron al barón Boyé, gran sátrapa militar de nuestra provincia de Guipúzcoa en nombre del Tirano, que les ayudase a hacer frente al pago de mil raciones para los soldados del Ogro que debían pasar en tales fechas por nuestra villa.

Tales aprietos se han ido repitiendo regularmente desde ese día hasta el de hoy. El 13 de mayo se exigió que se pagase el vino que se debía de las raciones que se dieron a la escolta del conde de Dorsenne cuando pasó por aquí. El 6 de agosto hubo ocasión para nuevos lamentos de esa índole cuando hubo que pagar todo lo que habían gastado los hombres que daban escolta a Aussenac otro de esos jefes de bandidos que se dan a sí mismos título de generales y mariscales del Imperio. Finalmente hace muy pocos días, hacia el 20 de este mes, nuestro Ayuntamiento de títeres debía volver a implorar la compasión de nuestros opresores porque no podían ya siquiera hacer frente a las raciones que se exigían para dar servicio a los mil y doscientos hombres que debían dar escolta a un individuo denominado duque de Ragusa, fiel servidor del Ogro Buonaparte que pasó por esta villa.

No faltó dinero, sin embargo, para que los días 14 y 15 de agosto se celebrase la fiesta del santo Napoleón. No lo hubo, sin embargo, para sostener a los regimientos que bajo mando de don Gaspar de Jauregui luchan por nuestra perdida Libertad. Fondos para una justa causa que se exigieron a ese Ayuntamiento servil en 29 de mayo de este año de 1812. Gran error, pues esas tropas son las únicas que nos pueden defender de esa horda de bandidos y de sus exigencias, que, os lo aseguro, dadas las circunstancias, no podrán seguir imponiéndonos durante mucho tiempo más.



Done Napoleonzat limosna - Limosna a San Napoleón